

«Idazkaritza»

2018/02/27an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 27/02/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Aintzane Agiriano Errasti.  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Rafael Bernal Gato  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko otsailaren 27an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez direla etorriko adierazi dute Maite Uribe, Aitor Zubizarretak eta Edorta Barandiaranek.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 27 de febrero de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusan su asistencia Maite Uribe, Aitor Zubizarreta y Edorta Barandiaran.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA3Z7EB>

**27/02/2018  
Ez Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno extraordinario**

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2018/01/23an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK**

2018ko otsailaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 1/2018 kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

## **3.- ESKORIATZAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOA DEPARTAMENTUAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA DATUTRUKATZEKO GIPUZKOAKO ERAGILEEN DATU BASEA GARATZEKO.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Departamentuak horrela eskatuta, eta onar dadin, eragileekin harremanetan jartzeko datuak elkarri lagatzeko hitzarmena sinatzeko Gobernu eta Finantza batzordeak egindako proposamena ikusi eta aztertu da.

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eragileekin harremanetan jartzeko datuak elkarri lagatzeko proposatutako hitzarmena sinatzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Departamentuarekin.

**Bigarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordez sinatzeko.

## **4.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearren 4. artikulua).**

2018 /02/27

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2017ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaiztak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 8 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**5.- 2015eko azaroaren 17ko 1091. zenbakiko eta 2016ko urtarilaren 22ko 00059. zenbakiko ALKATE ERABAKIEZ AITORTUTAKO ESKUBIDEAREN BAJA.**

1091/2015 eta 59/2016 zenbakietako alkate erabakiz aitortutako zorra bidezko ez izateagatik baja emateko 2018ko otsailaren 15eko 135. zenbakiko Alkate erabakiaren berri eman da.

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eraginik gabe uztea 2015/11/17ko 01091. zenbakiko eta 2016/01/22ko 59. zenbakiko erabakiak, eta aitortutako eskubideari baja emateko agintea.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaizta udal zerbitzu ekonomikoei baja eman diezaioten baliogabetutako zorrari.

**6.- HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2016ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eskoriatzako hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren adieraziko den esleipen prezioan (BEZ barne). Kontratua baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzei eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunei lotuta egongo da.

DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: 148.886,87 €

AUKERAKO ERAIKIN EDO GUNEAK

Udaletxea: 22.416,72 €

Kultur etxea: 11.743,22 €

Musika Eskola : 4.742,38 €

Kiroldégia: 28.356,11 €

Pilotalekua: 15.178,34 €

- GARBIKETA BEREZIA EGITEKO AUKERAKO ZERBITZUA

Ibarraundi Museoa: 46,06 €

Zaldibar antzokia: 69,08 €

Pilotalekua: 345,4 €

Udal etxebizitzak: 276,32 €

Kultur etxea: 46,06 €

Kontratu honek BI URTEKO iraupena du 2016ko martxoaren 16tik kontatzen hasita, eta beraz, 2018ko martxoaren 15era arteko indarraldia izango du.

Administrazio baldintza partikularren agiriko bigarren baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez, eta kontratuaren iraupen osoa ezingo da LAU URTE baino handiagoa izan. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikuluaren arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua aipatutako esperako luzatzea, Udalak ez baitu behar besteko baliabide material eta pertsonalik zerbitzua emango dela bermatzeko.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikuluaren arabera, kontratuaren luzapena kontratacio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Hirigintza eta Mugikortasun Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Udalaren jabegoko hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua luzatzea URTEBETEZ, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuai buruzko Legearren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Kontratua arautzen duen baldintza orriean berariaz jasotzen da kontratu honetan ez dela bidezkoa prezioak berraztertzeko formula.

**HIRUGARRENA.-** 148.886,87 euroko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko dagokion aurrekontu aplikazioaren kargura. Diru kopuru hori kontratuaren lehenengo urterako kontratatutako zerbitzuen kostuari dagokio.

<b>KONTZEPTUA</b>	<b>GASTUA (€)</b>	<b>PARTIDA</b>
Luis Ezeiza Herri Eskola	37.682	01.00.227.323.40.01
Haurreskola	15.687,74	0100.227.323.30.01
Biblioteka	10.353,49	0100.227.332.10.01
Kulunka Haurtzaindegia	14.726,45	0100.227.323.10.01
Ibarraundi Museoa	16.633,41	0100.227.333.20.01
Ludoteka	5.152,05	0100.227.337.30.01
EPA	2.936,00	0100.227.326.20.01
Elkarteen txokoa	1.327,37	0100.227.341.60.01
Kiroldegia	35.067,63	0100.227.342.20.01
Kiroldegiko garajea	728,32	0100.227.342.20.01
Geltoki zaharra	1.169,90	0100.227.153.40.01
Zaldibar antzokia	7.017,69	0100.227.333.30.01
Artxiboaren lokala	404,96	0100.227.332.20.01

**7.- ESKORIATZAN GARATUKO DIREN KULTUR PROGRAMA ETA JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

2018 /02/27  
Ez Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno extraordinario

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartu zituen.

Oinari horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota alegaziorik aurkeztu gabe, behin betikotzat jo ziren.

Udalbatzarrak, 2017ko uztailaren 20an egindako bilkuran, oinari horietako 12.f.3) artikulua aldatu zuen.

Indarrean dauden oinarriei hainbat aldaketa egitea proposatu du Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak.

Egindako proposamena ikusi eta eztabaidatuta, Udalbatzarrak, Aintzane Agiriano eta Nestor Arana abstenitura eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkututa, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarrieta honako aldaketak egitea:

- Lehenengo aldaketa: 4.b. artikuluan 5. apartatu hau gehitzea:
  - 4.b.5. Jardueraren hizkuntza.
- Bigarren aldaketa:

Honako hau dioen lekuan:

c) Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunekiko eta Eskoriatzako Udalarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izateari buruzko ziurtagiriari dagokionez, 3.000 euro baino diru laguntza txikiagoa eskatzen dutenek ziurtagiriaren ordez interesdunaren edo erakundearen ordezkarieren zinpeko adierazpena aurkeztu ahal izango dute zerga betebeharrik egunean dituztela adierazteko (II. eranskina).

Gizarte Segurantzaren ziurtagiriari dagokionez, erakunde horri ordaintzea eskatzen duen inolako lan harremanik ez badago, egunean dagoela adierazteko ziurtagiriaren ordez erakundearen ordezkarieren zinpeko aitorpena aurkeztu ahal izango da hori adierazteko (ez dagoela lan harremanik, eta beraz, gizarte segurantzari ordaintzeko bete beharrik ere ez) (III. eranskina).

Honako hau esatea:

c.- Baimena, erantsitako ereduaren arabera, Udalak egiaztu ahal izan dezan elkartea hori egunean dagoela Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan.

- Hirugarren aldaketa:

Honako hau dioen lekuan:

Diru laguntzak ezingo du gainditu jardueraren % 50aren kostu garbia (gastuak - sarrerak, egongo balira), eta edozein modutan, diru laguntza ez da izango 5.000 euro baino handiagoa.

Honako hau esatea:

Diru laguntzak ezingo du gainditu jardueraren % 80aren kostu garbia (gastuak - sarrerak, egongo balira), eta edozein modutan, diru laguntza ez da izango 5.000 euro baino handiagoa.

- Laugarren aldaketa:

Honako hau dioen lekuan:

f) Behin Udalak jakinarazita diru laguntza emango zaiola, informazioa ematerakoan, publizitatea edo propaganda egiterakoan zein diruz lagundutako jarduerak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

1. Eskoriatzako Udalak lagundutakoa dela jaso beharko da.
2. Ez da irudi eta hizkera sexistarik erabiliko.
3. Euskara bakarrik erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

Honako hau esatea:

f) Udalak diru laguntza emango diola jakinarazi ondoren egingo den publizitate edo propagandan Eskoriatzako Udalak lagundutakoa dela jaso beharko da.

g) Jardueraren informazioa emateko egingo den publizitate edo propagandan:

- Ez da irudi eta hizkera sexistarik erabiliko.
- Euskara erabiltzera joko da. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

**Bigarrena:** Aldaketak jendurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, aldaketa horiek behin betiko onartutzat joko dira erabaki beririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikuluak.

## **8- HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIEN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Udalbatzarrak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, “hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak” hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Jendaurrean egoteko tramitean, eta Garapen Jasangarria batzorde informatzaileak proposatuta eta 2017ko martxoaren 28an egindako Udalbatzarraren erabakiz, Udalbatzarrak otsailaren 21ean hasiera batean onartutako oinarriak aldatu ziren.

Indarrean dauden oinarriei hainbat aldaketa egitea proposatu du Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak.

Egindako proposamena ikusi eta eztabaidatuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** “Hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak” ondoren esango den bezala aldatzea:

- Lehenengo aldaketa: 4. artikula:

Honako hau dioen lekuak: a) Alokututako lokalak zein bertan egingo den jarduerak indarrean dagoen legedia bete beharko dute eta martxan jartzeko beharrezko diren tramiteak eginda izan beharko dituzte Udalean (udal lizentzia lortzea edo aurretiazko jakinarazpena eginda izatea).

Honako hau esatea: a) Alokututako lokalak zein bertan egingo den jarduerak indarrean dagoen legedia bete beharko dute eta martxan jartzeko beharrezko diren tramiteak eginda izan beharko dituzte Udalean (udal lizentzia lortzea edo aurretiazko jakinarazpena eginda izatea). Katastroan ere eguneratuta egon beharko da lokalaren erabilera, hau da, lokal komertziala izan behar da.

- Bigarren aldaketa: 5. artikula:

Honako hau dioen lekuak: - Lokala erosteko: Katastro-balioaren % 2a, eta gehienez, 2.000 €

Honako hau esatea: - Lokala erosteko: Katastro-balioaren % 4a, eta gehienez, 2.000 €

**Bigarrena.-** Aldatutako oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

## **9.- MERKATARITZA ESTABLEZIMENDU BAT IREKITZEKO DIRU LAGUNTZA EMATEA. (alokairua)**

Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 28an egindako bilkuran, “hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak” hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko apirilaren 12an, eta jendaurrean egoteko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betikotzat jo ziren beste erabakirik hartu behar izan gabe.

OINARRIETAKO 7. artikuluan jasotakoaren babesean, Alkateak diru laguntza horietarako deialdia egin zuen 2017ko maiatzaren 31ko erabakiz.

Usune Bengoa Flores andreak diru laguntza eskatu zuen, epe barruan, Bar Compostela dagoen lokalaren alokairua ordaintzeko.

Horretarako tramitatutako espedientea ikusi eta aztertuta, non eman beharreko diru laguntza proposamena jasotzen duen arloko teknikariak egindako txostena dagoen, Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Usune Bengoa Flores andreatsi ondorengo diru laguntza ematea COMPOSTELA TABERNAko alokairua ordaintzeko:

- Lehenengo urtean, 2018ko apirilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra arte: 195 €/hileko.
- Bigarren urtean, 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra arte: 130 €/hileko.

**Bigarrena.-** Deialdia arautzen duten oinarrien arabera, onuradunak honako hauek bete beharko ditu:

1. Jarduera egitea edota diru laguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.
2. Eskoriatzako Udalaren aurrean justifikatzea diru-laguntza ematearen edo erabiltzearen helburua eta ekintzak betetzen direla, bai eta ekintza horiek burutzeko baldintzak eta betekizunak betetzen direla ere.
3. Diru-laguntzak emateko baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko Udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.

4. Diruz lagundutako jarduera berengatik beste diru-laguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Eskoriatzako Udalari.

Beste diru-laguntza hori jasoko dela jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio Udalari eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako diruaren erabilera justifikatu aurretik.

5. Zerga betebeharretan, Gizarte Segurantzarekikoetan eta Eskoriatzako Udalarekikoetan egunean egotea.
6. Jasotako diruaren erabilerari buruzko egiaztagiriak gutxienez bost urtez gordetzea.
7. Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
8. Diru laguntza eman duen organoari jakinaraztea, diru laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.
9. Lokala alokatzeko diru laguntzen kasuan, jabeari egindako ordainketen agiriak hiru hilabetetik behin aurkeztea. Agiriak aurkeztu ondoren, Udalak diru-laguntza ordainduko du enpresak zehaztutako kontu korrontean.

**Hirugarrena.-** Lehen HIRU hilabeteko diru laguntza jabeari alokairua ordaindu zaiola egiazatzeko dokumentuak aurkeztu ondoren ordainduko da. Ondorengo diru laguntzak hiru hilabetetik behin ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiazatzeko dokumentuak aurkeztu eta gero, eta zerga betebeharak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren.

Eskatzaileak emandako kontu korrontean egingo da ordainketa, gehienez ere hilabeteko epean dokumentazio osoa aurkezten denetik kontatzen hasita.

**Laugarrena.-** Gastua onartzea eta 2018ko ekitaldiko hilekoei dagozkien ordainketak egiteko agintea (1.755 euro) indarrean dagoen aurrekontuko 055.481.431.00.01 partidaren kargura, eta 2019ko (1.755 euro) eta 2020ko (390 euro) hilabeteetako ordainketak dagozkien ekitaldietako aurrekontuen kargura.

## **10.- GAI ZERRENDAN SARTUTA EZ ZEGOEN ERABAKIA HARTZEA.- PRESAZKO TRAMITEA.**

Gai zerrendako gaiak aztertu ondoren, eta galde-eskeen txandara pasa aurretik, Udalbatzarrak erabaki dezan jartzen da presazko arrazoiengatik ondorengo gaia:

- Erakunde adierazpena 2018ko martxoaren 8rako.

**2018 /02/27  
Ez Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno extraordinario**

Gaiaren presa justifikatuta eta botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bera osatzen duten kideen gehiengo osoz, GAIA PRESAZKOTZAT JOTZEA onartu du.

Ondoren, gaia aztertu da.

### **11.- 2018ko MARTXOAREN 8ko ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

Rafa Bernalek, udal taldeen bozeramaleen izenean eta ordezkaritzan, gaur egindako bozeramale juntan adostutako erakunde adierazpenaren xedapen zatia irakurri du.

Ondoren transkribatzen da osorik mozioaren testua:

#### **ERAKUNDE ADIERAZPENA**

*Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?*

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, “Emakumeok planto!” leloaren pean errepikatuko da.

Munduko populazioaren erdiak baino gehiagok, emakumeek, jasaten duen ezberdintasunak, bazterkeriak eta egiturazko indarkeriak salatzeko deialdia da, baina, baita gizarte eredu justu, demokratiko eta berdinazalea aldarrikatzeko ere bai. Emakumeen lanak gure gizartean duen eragina ikusarazteko eta lan hori aitortua izan dadin eskatzeko greba. Beraiek gabe mundua erortzen dela, gelditzen dela, erakutsiko duen greba.

#### *Lanean*

Soldata bereizkeria da emakumeen eta gizonen arteko bereizketa gizartean “errepikatu eta iraunazaten duen” faktoreetako bat. Mundu osoan, emakumeek gizonezkoen soldataren % 60 eta 75 artekoa bakarrik irabazten dute balio bereko lanetan. Kalkulatzen da Euskadin, gaur egun, gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldea 7.551 eurokoa dela urtean.

Lan-bereizketa da bereizkeria mota horretako jatorrian dagoen faktoreetako bat, emakumeak lan mota zehatz batzuetara zokoratzen dituelako edo lidergo postuak hartzea galarazi. Bereizketa horren ondorio dira emakumeentzako lanpostutzat jotzen direnak, ezegonkortutako lanaren edo, areago, ezkutuko ekonomiaren parte direnak.

Askotan, emakumeek malgutasun handiagoko lanak onartu behar dituzte lanaren eta familiaren beharrak orekatzeko, eta horrek ere laguntzen du aipatutako lan-bereizketan. Ondorioz, gehiegizkoa da munduan aldi baterako lanetan ari diren emakumeen portzentajea. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan aldi baterako lanen % 80tik gora emakumeek egiten dituzte.

Emakumeak dira nagusiki zaintzarengatik baimenak eta eszedenziak hartzen dituztenak (10etik 9 emakumeek hartzen dituzte), eta horrek beraien garapen profesionala mugatu eta beraien eskubideak eta gizarte laguntzak murritzten ditu.

Eta ez dezagun ahaztu emakumeak direla pentsio txikienak jasotzen dituztenak.

*Eta zer gertatzen da ordaindu gabeko lanarekin?*

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoitzitako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin horien orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere.

Eta egiten dituzten zereginetan harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonek denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zaitasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Arrazoi horiengatik eta askoz ere gehiagorengatik, mozio hau aurkezten dugu Udalbatzarrak ondorengoko erabakiak har ditzan:

**ERABAKIAK**

Eskoriatzako Udalak:

1. Dei egiten dio gizarte osoari martxoaren 8a dela-eta eragile sozialek deituko dituzten mobilizazioetan parte hartzeko.
2. Konpromisoa hartzen du bandera feminista udaletxean jartzeko.
3. Konpromisoa hartzen du sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatzeko, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatzeko.
4. Konpromisoa hartzen du bere eskumenen alorrean zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen laguntzeko, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
5. Konpromisoa hartzen du Udaleko politikak genero-ikuspegirekin garatzeko.
6. Konpromisoa hartzen du balioen transmisioa azpimarratzeko, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaaketak susta daitezen.

Bozkatu ondoren, mozioa aho batez onartu da.

IRABAZIren bozeramaleari egindako lana eskertu dio Josu Ezkundiak, eta bertaratutako guztieei gai hain garrantzitsuan adostasunera iristeko erakutsitako jarrera.

### **13.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 23/01/2018.

## **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 19 de febrero de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta del acuerdo por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos Nº1/2018.

## **3.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA Y EL DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA PARA EL INTERCAMBIO DE DATOS PARA LA CREACIÓN DE UNA BASE DE DATOS DE AGENTES DE GIPUZKOA.**

Vista y estudiada a propuesta de convenio cuya aprobación se propone desde la Comisión de Gobierno y Finanzas a instancia del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la sociedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la cesión de datos de contacto de entidades, y

De conformidad con la propuesta elevada, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**Primero:** Formalizar con el Departamento de Gobernanza y Comunicación con la sociedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa el convenio de colaboración propuesto para la cesión de datos de contacto de entidades.

**Segundo:** Facultar al alcalde para que, en nombre y representación de este ayuntamiento, procede a la firma del mismo.

**4.-INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el pago de las obligaciones adquiridas por este ayuntamiento correspondiente al cuarto trimestre de 2017

El Pleno, con la asistencia de 8 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**5.-BAJA DE DERECHO RECONOCIDO POR RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 1091, de 17 de noviembre de 2015, Y POR RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA Nº 00059, de fecha 22 de enero de 2016.**

Dada cuenta de la Resolución de Alcaldía Nº 135, de fecha 15 de febrero de 2018, para la aprobación de la baja por improcedente de la deuda reconocida por Resolución de Alcaldía Nº 1091/2015 y Nº 59/2016 y

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Dejar sin efecto la Resolución N.º 01091, de fecha 17/11/2015 y la Resolución N.º 59, de fecha 22/01/2016 y ordenar se de de baja al derecho reconocido.

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja a la deuda declarada anulada.

**6.-PRORROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS MUNICIPALES.**

El Pleno de la Corporación, en sesión del día 15 de marzo de 2016, adoptó el acuerdo de adjudicar el contrato de prestación del servicio de limpieza de diversos edificios municipales en el municipio de Eskoriatza a HEMEN GARBIKETAK S.L.U , por el precio de adjudicación siguiente (IVA incluido) y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista :

SERVICIOS OBLIGATORIOS 148.886,87 €

**EDIFICIOS O AREAS OPCIONALES**

Casa Consistorial: 22.416,72 €

Casa Cultura : 11.743,22 €

Musika Eskola : 4.742,38 €

Polideportivo: 28.356,11 €

Frontón : 15.178,34 €

• SERVICIO DE PUESTA A PUNTO OPCIONALES

Ibarraundi Museoa: 46,06 €

Zaldibar antzokia: 69,08 €

Frontón : 345,4 €

Viviendas municipales : 276,32 €

Casa de Cultura: 46,06 €

La duración del presente contrato es de DOS años, a contar desde el 16 de marzo de 2016, terminando, por tanto, su vigencia el 15 de marzo de 2018.

De acuerdo con la cláusula 2 del pliego de cláusulas administrativas particulares, dicho plazo era prorrogable por otros dos periodos de UN AÑO, sin que la duración total del mismo pueda exceder de CUATRO años. La prórroga debe ser acordada expresamente de acuerdo con el art. 23.2 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Por parte del servicio encargado de la gestión del contrato, se emite informe en que se considera conveniente la prórroga del contrato por el plazo mencionado, dado que este ayuntamiento no dispone de medios personales y materiales suficientes para garantizar la prestación del servicio.

Asimismo, consta la conformidad del contratista con la prórroga propuesta.

De acuerdo con al artículo citado, la prórroga la acordará el órgano de contratación, siendo en este caso el Pleno.

De acuerdo con lo anterior, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Prorrogar el contrato de prestación del servicio de limpieza de diversos edificios municipales en el municipio de Eskoriatza por un periodo de UN AÑO , de acuerdo con lo establecido en la cláusula 2 del pliego y en el art. 23 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

**SEGUNDO.** En el pliego de condiciones que rigen el contrato se recoge de forma explícita que en dicho contrato no procederá la fórmula de revisión de precios.

**TERCERO.-**Aprobar el gasto de 148.886,87 euros con cargo a la aplicación presupuestaria correspondiente del Presupuesto en vigor, siendo el mismo correspondiente al costo de los servicios contratados durante el primer año de duración del contrato.

<u>CONCEPTO</u>	<u>GASTO (€)</u>	<u>PARTIDA</u>
Luis Ezeiza Herri Eskola	37.682	01.00.227.323.40.01
Haurreskola	15.687,74	0100.227.323.30.01
Biblioteca	10.353,49	0100.227.332.10.01
Kulunka Haurtzaindegia	14.726,45	0100.227.323.10.01

Ibarraundi Museoa	16.633,41	0100.227.333.20.01
Ludoteca	5.152,05	0100.227.337.30.01
EPA	2.936,00	0100.227.326.20.01
Elkarteen txokoa 0100.227.341.60.01	1.327,37	
Polideportivo	35.067,63	0100.227.342.20.01
Garaje polideportivo	728,32	0100.227.342.20.01
Antigua estación	1.169,90	0100.227.153.40.01
Zaldibar antzokia	7.017,69	0100.227.333.30.01
Local archivo	404,96	0100.227.332.20.01

**7.-APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LOS PROGRAMAS Y ACTIVIDADES CULTURALES QUE SE DESARROLLEN EN ESKORIATZA.**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 27 de abril de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las Bases para la concesión de subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrolle en Eskoriatza.

Publicadas dichas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 5 de mayo de 2017 y pasado el plazo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, la Bases quedaron aprobadas definitivamente.

Por acuerdo de fecha 20 de julio de 2017 las Bases fueron modificadas en su artículo 12.f.3).

Desde la Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Euskera se plantea introducir una serie de modificaciones a las Bases vigentes.

Vista y debatida la propuesta que se eleva, el Pleno, con la abstención del Aintzane Agiriano y de Nestor Arana y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, ACUERDA:

**Primero:** Modificar en los siguientes términos las Bases para la concesión de subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrolle en Eskoriatza:

- Primera modificación: Introducir el siguiente apartado 5 en el artículo 4.b:

4.b.5. Idioma en que se llevará a cabo la actividad.

- Segunda modificación:

Donde dice:

c) Certificado de estar al corriente en los pagos de la Seguridad Social, de la Hacienda Foral y del Ayuntamiento de Eskoriatza .

En relación al certificado de estar al corriente en el pago con la Hacienda Foral , en los casos de solicitudes de subvención por importe inferior a 3.000 euros, la certificación podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona interesada o representante de la entidad de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias (anexo II).

En relación con el certificado de la Seguridad Social, en los casos de aquellas entidades en las que no exista relación laboral alguna que requiera cotización a dicho organismo, la acreditación de estar al corriente podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona representante de la entidad en el sentido indicado (inexistencia de relaciones laborales y, por tanto, de obligación de cotización) (anexo III).

Que diga:

c.-Autorización, según modelo adjunto, para que el Ayuntamiento pueda comprobar que esa entidad está al corriente en los pagos a la Seguridad Social y Hacienda Foral.

- Tercera modificación:

Donde dice:

El importe de la ayuda no podrá superar el 50% del coste neto de la actividad (gastos - ingresos, si los hubiera),sin que en ningún caso la cuantía de la misma exceda de 5.000 euros.

Que diga:

El importe de la ayuda no podrá superar el 80% del coste neto de la actividad (gastos - ingresos, si los hubiera),sin que en ningún caso la cuantía de la misma exceda de 5.000 euros.

- Cuarta modificación:

Donde dice:

f) Una vez notificada la concesión de subvención por parte del ayuntamiento en todas las acciones de información, publicidad y propaganda así como en el desarrollo de las actividades subvencionadas:

1. Se deberá hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Eskoriatza.
2. Se utilizará una imagen y lenguaje no sexista.
3. Se tenderá a utilizar únicamente el euskera. En caso de que se utilicen las dos lenguas oficiales, se dará preferencia al euskera.

Que diga:

f) Una vez notificada la concesión de subvención por parte del ayuntamiento en todas las acciones de información, publicidad y propaganda se deberá hacer constar la colaboración del Ayuntamiento de Eskoriatza.

i)En la publicidad o propaganda que se utilice para dar información sobre la actividad:

- Se utilizará una imagen y lenguaje no sexista.
- Se tenderá a utilizar únicamente el euskera. En caso de que se utilicen las dos lenguas oficiales, se dará preferencia al euskera.

**Segundo:** Exponer las modificaciones a información pública por plazo de treinta días para que puedan presentarse reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán de ser resueltas por la Corporación. De no producirse éstas, y al amparo de lo previsto en el art. 49.c) de Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, con la modificación introducida por la Ley 11/1999, de 21 de abril, dicha modificación se entenderá definitivamente aprobada sin necesidad de nuevo acuerdo.

#### **8.-APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS A LA APERTURA DE NUEVOS ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES O DE SERVICIOS MEDIANTE LA PUESTA EN VALOR DE LOCALES VACÍOS.**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 21 de febrero de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las “Bases reguladoras de las ayudas a la apertura de nuevos establecimientos comerciales o de servicios mediante la puesta en valor de locales vacíos”.

Dentro del trámite de exposición pública, y a propuesta de la Comisión Informativa de Desarrollo Sostenible, por acuerdo del Pleno de fecha 28 de marzo de 2017, se modificaron las Bases aprobadas inicialmente por el Pleno en sesión del día 21 de febrero.

Desde la Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible, se plantea introducir una serie de modificaciones a las Bases vigentes.

Vista y debatida la propuesta que se eleva, el Pleno por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Modificar en los siguientes términos las “Bases reguladoras de las ayudas a la apertura de nuevos establecimientos comerciales o de servicios mediante la puesta en valor de locales vacíos”:

- Primera modificación: En el artículo 4:

Donde dice: a) Tanto el local alquilado como la actividad que se desarrolle en él deberán dar cumplimiento a la legislación vigente, así como haber realizado la correspondiente tramitación ante al Ayuntamiento para su puesta en funcionamiento (obtención de licencia municipal o comunicación previa).

Que diga: a) Tanto el local alquilado como la actividad que se desarrolle en él deberán dar cumplimiento a la legislación vigente, así como haber realizado la correspondiente tramitación ante al Ayuntamiento para su puesta en funcionamiento (obtención de licencia municipal o comunicación previa). El destino del local deberá de estar actualizado también en el catastro, esto es, deberá de constar como local comercial.

- Segunda modificación: En el artículo 5:

Donde dice: - En el caso de compra del local: El 2 % del valor catastral del local hasta un máximo de 2.000 €

Que diga: - En el caso de compra del local: El 4 % del valor catastral del local hasta un máximo de 2.000 €

**Segundo:** Someter las BASES modificadas a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

## **9.-CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN PARA LA APERTURA DE NUEVO ESTABLECIMIENTO COMERCIAL. (alquiler)**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 28 de marzo de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las Bases para regular las ayudas a la apertura de nuevos establecimientos comerciales o de servicios mediante la puesta en valor de locales vacíos .

Publicadas dichas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 12 de abril de 2017 y, pasado el plazo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, fueron aprobadas definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

Al amparo de lo previsto en el art. 7 de las BASES, la Alcaldía, por Resolución de fecha 31 de mayo de 2017, convocó dichas ayudas.

Dentro del plazo establecido al efecto, Usune Bengoa Flores solicitó ayuda para el pago del precio de alquiler de local donde está emplazado el Bar Compostela.

Visto y analizado el expediente tramitado al efecto, donde obra el informe emitido por la técnica del área con la propuesta de la cantidad de ayuda a conceder, la Comisión Informativa de Desarrollo Económico eleva propuesta.

De conformidad con la propuesta elevada y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Conceder a Usue Bengoa Flores la ayuda que a continuación se detallará para el pago del alquiler del local donde está emplazado el Bar Compostela:

- Primer año, desde el 1 de abril de 2018 a 31 de marzo de 2019: 195€/mes
- Segundo año, desde el 1 de abril de 2019 a 31 de marzo de 2020: 130 €/mes

**Segundo:** De conformidad con las Bases que regulan la convocatoria, la persona beneficiaria estará obligada a:

1. Cumplir los objetivos y/o realizar las actividades que fundamentan la concesión de la subvención.
2. Justificar ante el Ayuntamiento de Eskoriatza la realización de las actividades y el cumplimiento de la finalidad determinantes en la concesión o disfrute de la subvención, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones para ello.
3. Someterse a las actuaciones que el Ayuntamiento pueda llevar a cabo a fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos para concesión de subvenciones.
4. Comunicar al Ayuntamiento de Eskoriatza, en su caso, la concesión de otras subvenciones que financien las actividades subvencionadas.

Esta comunicación deberá hacerse tan pronto como se tenga noticia de ello, y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la utilización dada a los fondos recibidos desde el Ayuntamiento.

5. Estar al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social, así como con el Ayuntamiento de Eskoriatza.

6. Conservar durante al menos cinco años los documentos justificativos de la utilización de los fondos recibidos.
7. Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada, y cumplir sus determinaciones.
8. Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
9. En caso de ayudas para el alquiler, presentar trimestralmente los documentos del pago realizado a la propietaria del local. Una vez presentados los documentos, el Ayuntamiento procederá al pago de la subvención en la cuenta corriente que haya indicado la empresa.

**Tercera:** La subvención correspondiente a los primeros TRES meses se abonará tras la presentación de los documentos que acrediten que se ha hecho efectivo el pago del alquiler a la propiedad. Las subvenciones siguientes se abonarán trimestralmente , una vez presentados los documentos del pago efectivo del alquiler correspondiente a dichos tres meses, y tras acreditar que se encuentra al corrientes en sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social, así como con el Ayuntamiento de Eskoriatza

El pago se hará efectivo en la cuenta que se haya facilitado y en un plazo máximo de un mes, a contar desde la presentación de la documentación en su totalidad.

**Cuarto:** Aprobar el gasto y ordenar el pago de las mensualidades correspondientes al ejercicio 2018 ( 1.755 euros) con cargo a la partida 055.481.431.00.01 del vigente presupuesto, y las mensualidades correspondientes a los años 2019 ( 1.755 euros) y 2020 (390 euros) con cargo al presupuesto de los ejercicios correspondientes.

#### **1.-ADOPCIÓN DE ACUERDO NO INCLUIDO EN EL ORDEN DEL DIA .- TRÁMITE DE URGENCIA**

Concluido el examen de los asuntos incluidos en el orden del día , y antes de pasar al turno de ruegos y preguntas, se somete a consideración del pleno por razones de urgencia el asunto que a continuación se indicará:

- Declaración Institucional para el 8 de marzo de 2018.

Justificada la urgencia y sometida a votación, resultó aprobada la DECLARACIÓN DE URGENCIA DE DICHO ASUNTO por el Pleno de la Corporación y la mayoría absoluta de los miembros que la forman.

Seguidamente se procede a tratar .

**11.- DECLARACION INSTITUCIONAL DEL 8 DE MARZO DE 2018.**

Rafa Bernal, en nombre y representación de los portavoces de los grupos municipales, lee la parte dispositiva de la declaración institucional consensuada en la Junta de Portavoces celebrada el día de hoy.

A continuación se transcribe el texto íntegro de la moción:

## ***DECLARACIÓN INSTITUCIONAL***

*¿Qué pasa si las mujeres no cuidan, no consumen, no trabajan y no participan?*

Esta reflexión llevó el año pasado al movimiento feminista a lanzar una convocatoria de huelga internacional de mujeres en más de 70 países y este año 2018 se repite bajo el lema de “*Emakumeok Planto!*”.

Una convocatoria de denuncia frente a las desigualdades, las discriminaciones y las violencias estructurales que sufren más de la mitad de la población mundial, las mujeres, pero también de reivindicación de un nuevo modelo social, justo, democrático e igualitario. Una huelga que permita visibilizar el impacto que tiene en nuestra sociedad el trabajo de las mujeres y exigir que este sea reconocido. Que demuestre que sin ellas el mundo se cae, el mundo se para.

### *En el trabajo*

La discriminación salarial es uno de los factores que "reproduce y perpetúa" la desigualdad de mujeres y hombres en la sociedad. En todo el mundo, las mujeres ganan sólo entre el 60 y el 75 por ciento del salario de los hombres en trabajos de igual valor. En Euskadi se calcula que actualmente la diferencia salarial entre hombres y mujeres es de 7.551 euros anuales.

La segregación ocupacional es uno de los factores que se encuentra en el origen de este tipo de discriminación, ya que relega a las mujeres a determinados tipos de trabajo o les impide ocupar posiciones de liderazgo. Fruto de esta segregación existen los empleos considerados femeninos. Empleos que forman parte del empleo precarizado o incluso de la economía sumergida.

En muchas ocasiones las mujeres tienen que aceptar ocupaciones de mayor flexibilidad laboral para equilibrar las necesidades del trabajo y la familia, lo que contribuye a la citada segregación laboral. En consecuencia, existe en todo el mundo una representación excesiva de las mujeres en trabajos de tiempo parcial. Concretamente, en la Comunidad Autónoma Vasca más del 80 % del trabajo a tiempo parcial es desarrollado por las mujeres.

Las mujeres asumen mayoritariamente permisos y excedencias por cuidado (9 de cada 10 son tomadas por mujeres) lo que limita su desarrollo profesional y merma sus derechos y prestaciones sociales.

Y no olvidemos que las mujeres son las que reciben las pensiones más bajas.

*¿Y qué ocurre con el trabajo no remunerado?*

El bienestar de nuestra sociedad no sería posible sin la realización de actividades imprescindibles para la sostenibilidad de la vida como el cuidado de las personas (niñas y niños, mayores y personas dependientes...) o el mantenimiento de las tareas del hogar. Estas labores, mayoritariamente no remuneradas, recaen principalmente en las mujeres. Sin su contribución la sociedad se pararía.

Gran parte del trabajo de las mujeres está invisibilizado y no se contabiliza. Esto implica no solo que se subestime el valor de los bienes y la riqueza producidas en los hogares; además, niega e invisibiliza la horas y la contribución económica que suponen estas labores realizadas mayoritariamente por mujeres, e invisibiliza asimismo el enorme ahorro social que suponen en servicios de cuidado, sanitarios, sociales y de protección.

Si tenemos en cuenta las horas dedicadas dentro y fuera del mercado de trabajo, las mujeres asumen en nuestra sociedad el 56 % del mismo, pero realizan el 74% del trabajo no remunerado.

Y es que no se trata únicamente de las tareas que realizan, sino que como consecuencia del tiempo que las mujeres dedican al cuidado y a las tareas del hogar, los hombres disponen de más tiempo que emplean en el desarrollo de su carrera profesional y laboral, o de cualquier actividad social o de ocio a la que las mujeres tienen grandes dificultades de acceso.

Este uso diferencial del tiempo constituye un importante freno para el avance en el objetivo de la igualdad traduciéndose en la perpetuación de los estereotipos sobre hombres y mujeres y en un obstáculo estructural para conciliar las diferentes responsabilidades atribuidas por género, entre otras consecuencias.

Por éstas y muchas más razones, presentamos esta moción, para que el Pleno adopte los siguientes

#### **ACUERDOS:**

El Ayuntamiento de Eskoriatza:

1. Hace un llamamiento al conjunto de la sociedad, para que se sume a las diferentes movilizaciones que con motivo del día 8 de marzo serán convocadas por los diferentes agentes sociales.
2. Se compromete a enarbolar la bandera feminista en el Ayuntamiento.
3. Se compromete a desarrollar programas de sensibilización y formación dirigidos a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado y mantenimiento del hogar, así como a compartir los espacios de decisión con las mujeres.

4. Se compromete a contribuir en el ámbito de su competencia al desarrollo y consolidación de recursos y servicios públicos para apoyar el cuidado y promover la articulación de estrategias comunitarias para la corresponsabilidad social en los cuidados.
5. Se compromete a desarrollar las políticas municipales con perspectiva de género.
6. Se compromete a incidir en la trasmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria.

Sometida a votación, es aprobada por unanimidad.

Josu Ezkurdia agradece al portavoz de IRABAIZ el trabajo realizado y a todos los presentes la actitud de consenso han mostrado en un tema de suma importancia.

### **13.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:45 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

